

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OSAKIDETZA-OSASUNAREN EUSKAL ZERBITZUA ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017.**

---

Joan den uztailaren 24an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onartu zuen Osakidetza-Osasunaren Euskal Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren ekonomia-finantzazko kudeaketaren fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona; baita, Osatek SAREna ere, non Osakidetzak baltzu kapitalaren % 100en jabetza duen.

Bi erakundeen urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du; salbuespen da Osakidetzaren kasuan, langileria jakin baten erretiro osagarriengatik geroko ekitaldietan ordaindu beharreko obligazioak kontabilizaturik ez izatea (gastu hauek ordaindu ahala kontabilizatzen dira eta 2017ko abenduaren 31n kontabilizatzeko dagoen zenbatekoa 94 milioi eurorena dela balioetsi da).

Txostenak ondorioztatu du bai Osakidetzak bai Osatek SAK zuzentasunez bete dutela 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia; alabaina, ikusi da Osakidetzak kontratu txiki modura izapidetu dituela botika eta bestelako hornigaien erosketak, 10,1 eta 58,4 milioi eurorenak, kontratazioaren xedea zatikatuaz. Gainera, bi espedientetan ez dira modu egokian justifikatu eskusibotasuna eta berehalako premia, zeinaren indarrez esleitu baitira bi kontratuak publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez.